

TRANTSIZIO DIGITALA



1. ARRAZOIA

Ezaugarriak

Nafarroan, industria da sektore ekonomiko garrantzitsua, eskualdeko lehiakortasunari eta kalitateko enpleguari egiten dien ekarpenagatik

Gizartearen eta ekonomiaren digitalizazioa joera esponentziala da, eta eragin handia izaten ari da sektore tradizionaletan; aspaldiko enpresa eta negozioen jarraitutasunari ere modu disruptiboan eragiten dio

Egokitu beharra are handiagoa da esportazioan aritzen diren sektoreetan; izan ere, teknologia berriak aplikatu behar dituzte arlo hauetan laguntzeko: prozesuen eta produkzioaren eraginkortasuna, informazioa kudeatuz erabakiak hartzea, jasangarritasuna, eta azken kontsumitzailearenganako hurbilketa, gero eta digitalagoa dena

Gainera, Nafarroak mekatronikako eta makineria bereziko sektore oso garrantzitsua du, negozio jakin batzuetan maila goreneko ekoizpen ahalmenak dituena (salmenta automatikoko makinak, lerro zuria, makineria berezia)

Nafarroako IKT sektoreak hazteko aukera du industriaren eta gizartearen lehiakortasun beharrei erantzunez

Balio-katea

Enpresak: Falcon, Das Nano, Biko, CyC, Tracasa, Conasa, Cistec, Orbital, IAR, Azkoyen, GM Vending, MTorres...

Jakintza entitateak: NAITEC, NUP, AIN, Salestarrak...

Lankidetzak entitateak: IRIS, ATANA, FPRINT, AIN, FIN, CITI...

Sortzen ari diren ekimenak

Startupak: UpTech Sensing, Elliot Cloud, Neuraptic, Nautilus, Pyroistech...

Proiektuak: AIROB (industria konplexuari aplikaturiko adimen artifiziala), CHIPLESS (RFID gailuen inprimaketa funtzionala)

Nazioarteko lankidetzak

AI&Data&Robotics PPP Europa Horizontea programan

European Partnership for Key Digital Technologies (KDT)

Partnership Artificial Intelligence and Human Machine Interface

Partnership SME Integration to Industry 4.0

CONETIC

Akitaniako BDG (DIHNAMIC) Euroeskualdearen eremuan

Emilia-Romagnako BDG (ER2Digit), HPC

Tampereko BDG (SIX-Manufacturing), fabrikazioan eta robotikan ardaizten dena

2. IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

2030 ikuspegia



Nafarroak bere produktibitatea bultzatzen du, datuaren ekonomian, prozesuen automatizazioan eta fabrikazio aurreratuko teknologietan oinarritutako soluzio digitalen garapenari eta ezarpenari esker

FOKUA



- Produkzio prozesuen digitalizazioa
- Produktu mekatronikoaren garapena
- Adimen artifiziala eta datuaren ekonomia

Joerak

Tresna digitaletan oinarritutako fabrikazio sistema berriak txertatzea

Ekoizpen teknika moldagarriagoak eta ahaltsuagoak, industria prozesuen automatizazioari esker, robotizazioa barne

Bezeroentzako produktuak bereiztea fabrikazio jarraitu eta masiboren barnean

Produktuei eta prozesuei buruzko datuak lortzea, produktu eta prozesuetan sentsoreak eta elektronika txertatuta, datuak jasotze aldera

Sentsorika txertatzea teknologia berrien bidez (adib.: *wearable* teknologia)

Denbora errealeko iragarpena eta informazioa, eta prozesuen hobekuntza datuen analisiaren bidez

Telelaguntza, telekudeaketa eta telepresentziako eredu berriak txertatzea industria sektore guztietan, presentzia fisikoaren ordez birtuala ezarrita

Pertsonen identitate digitala ziurtatzeko tresnak, presentzia digitalerako beharrezkoak direnak administrazioaren, enpresaren eta gizartearen arteko harremanean

Kostuen aurrezteak eta zerbitzuaren hobekuntza urrutiko kontrolaren eta mantentze-lanen bidez

Azken bezeroarekin harremanetan jartzeko eta elkarreragiteko eredu berriak, industriaren negozio ereduaren zerbituzazioa

Nazioarteko ikuspegia

Europako Batzordearen lehentasunetako bat da "A Europe fit for the digital age", eta horren mende dago "Europe's Digital Decade: digital targets for 2030: Digital transformation of businesses", enpresen 2030erako digitalizazio helburuak ezartzen dituen

- Tech up-take: 75% of EU companies using Cloud/AI/Big Data
- Innovators: grow scale ups & finance to double EU Unicorns
- Late adopters: more than 90% of SMEs reach at least a basic level of digital intensity

Era berean, "European Industrial Strategy" berria, COVID-19aren eraginaren ondoren indartu dena arreta industriaren eraldaketan eta erresilientzian jartzeko eta funtsezko 19 sektore lokalizatzearen alde egiten duena

Kontuan izan behar da "Industry 5.0" kontzeptua, 4.0 industriak gizarte eta ingurumen helburuekiko duen ikuspegia areagotzen duena

Lotutako GJHak



3. LAN-ILDOAK

Lan-ildo komunak		EA	TE	TD
GAITASUN DIGITALAK				
01	Sentsibilizazio digitala eta prestakuntza. Lanbide eremu bakoitzean gaitzea eta trebetasunak garatzea			●
ENPRESAREN ETA BALIO-KATEAREN TRANTSIZIO DIGITALA				
02	Plangintza eta laguntza ematea enpresaren estrategia digitala garatzeko eta ezartzeko eta negozio eredu digitalak sortzeko	●		●
03	Hornikuntza katea eta hornitzaileen sarea /ekosistema digitalizatzea: lan aginduak, biltegiak, <i>online</i> salmenta, produktuen trazabilitatea eta abar kudeatzea	●		●
04	Bezeroarekiko harreman digitala (salmenta, euskarria...) eta zerbitziorako orientazioa	●	●	●
05	Datuaren ekonomiaren aprobetxamendua (adimen artifiziala, business intelligence, kontsumo joerak...), negozio arlo guztietan aplikatuta	●		●
06	Telepresentzia bultzatzea (telelana, telekudeaketa, telemonitorizazioa)	●		●
PROZESUEN, PRODUKTUEN ETA ZERBITZUEN TRANTSIZIO DIGITALA				
07	Produktzio lerro autonomoagoak, malguagoak eta informazio sistemekin integratuak, fabrikazio teknologia berriak ezarrita	●		●
08	Produktuetan/zerbitzuetan funtzionalitate berriak txertatzea eta datuetan oinarritutako zerbitzazio ereduak	●		●
09	Zibersegurtasuna, biometria eta identitate digitala. Enpresa komunikazioak optimizatzea eta informazioa babestea	●		●
10	Simulazio digitala eta prototipogintza azkarra aplikatzea (biki digitalak, errealitate birtuala, errealitate areagotua...) produktuaren diseinu-prozesuetan, ekoizpen lerroetan, mantentze-lanetan, segurtasunean, prestakuntzan eta abarretan	●	●	●
11	Eraikuntza industrializatuaren garapena: teknologia digitalen erabilera, robotizazioa, 3D simulazioa offsite eraikuntzarako	●		●
Lan-ildo espezifikoak				
MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA ETA KONEKTATUA				
01	Ibilgailuetarako osagaien garapena eta sofistikazioa: sentsorizazioa, komunikazioak (osagaien artean eta/edo <i>Smart Cities</i> azpiegiturarekin), material berriak eta funtzionalitate berriak	●		●
02	Mugikortasun ereduaren eta energia horniduraren zerbitzazioa, bereziki <i>Smart Cities</i> ekin lotutakoena (komunikazioak eta zerbitzuak)	●	●	●
03	Logistika adimentsuago eta jasangarriagoaren eredu berriak, "azken miliako banaketa", biltegi partekatutak	●	●	●

Lan-ildo espezifikokoak		EA	TE	TD
ELIKADURA OSASUNGARRIA ETA JASANGARRIA				
04	Doitasunezko nekazaritza. Laboreak kudeatzeko sensorizazioa eta teledetekzioa	●	●	●
05	Elikagaien segurtasuna eta trazabilitatea bermatzeko teknologia berriak	●		●
04	<i>Online</i> salmenta bideen bilakaera eta kontsumitzailearekiko lotura	●		●
ENERGIA BERDEAREN INDUSTRIA				
07	Hainbat iturritatik datorren energia adimenez kudeatzeko eta integratzeko sistemak garatzea, sorkuntza banatua, mikrosareak eta energia-komunitateak barne. Energiaren jatorri berriztagarriaren ziurtagiria	●		●
08	Instalazioen urrutiko kudeaketarako eta mantentze-lan prediktiboetarako teknologiak	●		●
MEDIKUNTZA PERTSONALIZATUA				
09	Telearreta eta telemonitorizazioa egiteko gailuak diseinatzea eta fabrikatzea, adinekoei, desgaitasunak dituztenei eta eritasun kronikoen tratamenduari laguntzeko	●		●
10	Pazienteari eman beharreko laguntza hobetzeko eta prebentziorako <i>software</i> aplikazioak garatzea	●		●
11	<i>Big Data</i> , adimen artifiziala eta zibersegurtasuna aplikatzea, gaixotasunak diagnostikatzeko, tratatzeko eta prebenitzeko prozesuetan datu medikoak, genomikoak eta bestelakoak kudeatzeko	●		●
TURISMO JASANGARRIA				
12	Eremu turistikoaren kudeaketa jasangarria. Sarbideak eta bisitarien joan-etorriak arautzea	●	●	●
13	Marketin digital turistikoa eta berrikuntza garatzea merkatu digitalera egokitutako produktu eta prozesuetan	●		●
14	Turismo merkatuen adimen sistema. Eskariari, lehentasunei eta portaerei buruzko datuak biltzea merkaturatze turistikoan erabakiak hartzeko	●		●
15	Lehiakortasuna sustatzea gaikuntzaren bidez, turismo eskaintza berritzaile, jasangarri eta eskuragarria eratzeko	●		●
IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA				
16	Animazio digitala eta bideo-jokoak garatzea	●		●
17	Datua ustiatzea (<i>Big Data</i>) eta adimen artifiziala balio-kate osoan aplikatzea, bai audientziak aztertuta eta edukiak sortuta, bai ikusleekin konektatuta (emozioak harrapatu, lehentasunak jakin...)	●		●
18	Contenido más impactante mediante la utilización de nuevas tecnologías como realidad virtual, realidad aumentada, hologramas y dispositivos de grabación más sofisticados (drones, sistemas <i>Dolly</i> o <i>slow motion</i> ...)	●		●
ERAIKUNTZA INDUSTRIALIZATUA				
19	Eraikuntza industrializatuaren garapena: teknologia digitalen aplikazioa, robotizazioa, 3Dko simulazioa; produktu aurrefabrikatua garatu eta eraikuntza-prozesua industrializatzeke	●		●

Oharra: EA: Enpresa-aukera TE: Trantsizio Ekologikoa TD: Trantsizio Digitala